

Guztion egia: filosofia garaikideko biraketa interpretatiboa

Daniel Innerarity

"Hemen". Erljio gogoetarako aldizkaria, 20 (2008), 17-22.

Azken urteotako polemikarik antzuenetako bat, nire ustez, erlatibismoaren aurkako eginahalen atzean dagoena izan da. Erlatibismoaren aurkako gurutzada filosofia garaikidearen aurkikuntzarik handienetako bat ez ulertzetik dator, beste inork baino hobeto hermeneutikak formulatu duena, alegia, egia interpretazio-kontu bat dela, guztion kontua, eta horren leku propioa elkarrizketa dela. Egia ulertzeko era horren printzipioak aztertu nahi nituzke eta hortik eratortzen diren zenbait ondorio erakutsi.

Arrazionaltasun hermeneutikoaren izaera berezia gure adierazpenen esanahiaren ikusmolde mekanikotik beste batera pasatzean agertzen da, eta horren arabera zentzua ez da eraketa mekanikotik eta ezinbestekotik eratortzen den zerbait, ezin aurreikusizko esanahi bat agertarazten duen gertakaria baizik. Arrazionaltasun interpretatiboa zentzu-eszenatoki batean gertatzen da, eta ez da axioma baten ezinbesteko garapena. Horregatik, pentsamenduaren egoitza –adierazten duen hizkera, sortarazten duten tradizio historiko eta kulturalak, hizketakideen komunikazio-loturak eta eraginak– ez da borrokatu edo toleratu beharreko kanpoko zerbait, ezta egoera jakin baten gainetik egon behar lukeen zerbait ere, baizik eta arrazoi historikoa eta mugatua gauzatzen den modua. Egia ez da egia

gizakien iritzitik askea delako, erabiltzen den hizkera erabiltzen dela, edo aldakortasunari aurre egiten diolako; egia bat elkarrekin partekatzeko duen gaitasunean atzematen da, bere adierazkortasunean eta ñabardura historikoak jasotzeko duen ahalmenean. Egia, bere interpretaziozko egituragatik, ez da erabat aldakortasunaren eta heriotzaren giza eremutik at kokatzen.

Biraketa interpretatiboak ez dakar berekin objektuak ez direla inolaz ere interpretaziotik aparte existitzen dion tesiari eustea. Hau esamolde interesatua izan ohi da, nolabaiteko erlatibismoaren aurka landua, aurkako tesiaren alderdirik ahulena bilatzen duena eta existentziaren ukapen bihurtzen duena. Biraketa interpretatiboak ez du defenditzen interpretatua ez den ezer existitzen ez delako tesia, ez du bere gain hartzen zerbaiten existentziarik ezaren frogara. Aitzitik, azpimarratzen du ez dagoela modurik objektuen irudikapena esplikatzeko, espazioan eta denboran kokatuko duen interpretazio kategorizatzailetik, identifikatzailetik aparte. Hau adierazteak ez du esan nahi objektuen edo gertaeren existentzia ukatzen denik, ezta gure irudimenaren produktu huts bihurtzen direnik ere.

Kritikak printzipio interpretatzailearen izaera auto-suntsitzailea dela adierazi ohi du: egia baldin bada guztia interpretazio dela, orduan guztia dela interpretazio dela esatea ere interpretazioa da. Interpretazioaren ikuspegitik tesi hau logikoa da, baina hortik ez da printzipioaren faltsutasuna eratortzen. Hasteko, interpretaziozko printzipioak "guztia" aipatzen duenean, espazioan eta denboran kokatutako gertaerez edo objektuez, kokatuez eta zehatzez ari delako. Azalpen honek barneko desberdintasun bat jartzen du jokoan

printzipioak adierazten duenaren eta printzipioaren beraren artean. "Guztia" esatean ez da objektu zehatz batez ari ("guztiz"), baizik eta balizko edozein objektuz. Hermeneutikak bere burua oinarrizko jakite gisa uler badezake, ez da erabateko osotasun-pretentsioa duelako, osotasunari kritika egin nahi diolako baizik, konbentzitu dagoelako, alegia, izaki mugatuak garenez, ezin dugula atzeman zera partikular eta konkretu oro menpean hartuko lituzkeen osotasuna. Interpretazio gisa ulertzen den filosofiak ez du bere burua ikusten osotasuna tramitatzeko tenorean zegoela usten zuen metafisika haren ondorengo izateko gai, baizik eta jarrera horren kritikatik sorturiko pentsamendu filosofiko bezala ulertzen du bere burua, hain zuzen ere. Biraketa interpretatiboak ez du guzti-guztia bere baitan hartu nahi, baizik eta giza mugatasunari dagokion zentzu mugatuaz ohartarazi nahi du.

Desbideratze erlatibista suposatzen dutena saihesteko asmoarekin, hermeneutikaren kritikak haren muga azpimarratzen du. Interpretazioaren moderatzaileek ohartarazten dute ez dutela eragozpenik gauzak eta objektuak agertzen zaizkigun bezala esperimendatzeko, testuinguru jakin baten barruan, herentzia kultural batekin eta jarrera subjektibo jakin batekin, baina honek ez duela bidezko bihurtzen beste pauso bat ematea, esanez atzematen dugun guztia hutsean geratzen dela gure interpretazio subjektiboaren ekoizpen soila delako, eta munduan ez dela ezer guregandik independente denik edo gure gertaera-deskribapenetik kanpo dagoenik. Objektzio horri ematen zaion erantzun hermeneutikoak ez du interpretazioaren balizko arbitrariotasuna mugatzen, baizik eta azpimarratzen du kritika horrek ez duela

zentsurik, dualismo batek harrapatuta dagoelako, hots: interpretatu ezin daitekeen iraunkorra alde batetik eta aldaketa historikoaren alorra bestetik aurrez aurre jartzen dituelako, subjektibismoa bataren eta bestearen arteko mugarriak jarriz konjuratuko balitz bezala, ohartu gabe mugarriak jartzeak ez duela eztabaida konpontzen, baizik eta beste eztabaida bat sortzen duela. Izan ere, interpretazioari mugaren bat jartzekotan, oraindik justifikatu beharko litzateke muga hori non, nola eta zein operazioen bidez jarri.

Interpretazioari muga jartzeko ahalegina bete-betean sartzen da Wittgenstein-ek polemika hori objektu bat seinalatuz erabakitzeke saiakerari egiten dion kritikaren barruan. Ekintza hori ez da objektibotasunaren garaipen bat subjektuaren aurrean, denotazioa ez delako neutroa (eta kasu horretan ulertezina izango litzateke, baketzaila baino gehiago). Interpretazioak interpretazioekin bakarrik borrokatzen dira. Esperientzia enpirikora jotzeak ez du inolako argudiorik ekartzen ez-interpretaziozko errealismoaren alde. Faktuak existitzen direla ez da faktu bat, interpretazioa baizik. Eta argi ikusten da ezin gintezkeela interpretaziotik kanpo kokatu, hain zuzen ere ezin dugulako ez-interpretaziozkoaren inolako definiziorik eskaini –ze hitzen funtzio semantikoak eta pragmatikoak, eta hizkeraren adierazpenak, interpretazio-funtzioak dira–, ezin dugulako ez-interpretaziozkoaren inolako definizio ez interpretaziozkorik eman.

Horregatik, nire ustez, ez du zentsurik, interpretazioari mugak jartzeko planteamenduaren kezka, interpretazioaren objektibotasuna espazio ziurtatu baten existentziaren baitan egongo balitz bezala, hermeneutikaren aurrez aurre. Eredu hau oso berea

dute fundazionalismo arrazionalistak, dedukzio baten egitura duenak. Eskema honetatik abiatuz gero, ez da harritzekoa printzipio batzuk interpretazio-zurrunbilotik aparte gordetzeko ahalegina, eztabaida nolabait mugatua egon dadin. Arazoa da muga horien zehaztapena kasu bakoitzean jokoan dagoenaren baitan dagoela. Badirudi murrizketa hau exigitzen duenak pentsatzen duela joko-eremu ziurtatu bat dagoela, kanpoko ertzetatik soilik indargabetu daitekeena. Interpretazioaren jardunerako muga estu batzuk exigitzea bidezkoa bezain desegokia da, baldin eta gure esperientzia ulertu eta garatu nahi bada, eta ez printzipio aldaezinak mugikortasunaren hondoratzetik salbatu.

Planteamendu fundazionalistaren joera behatoki bat eraikitzea da, baina hortik errealitatea, bizitza, gizartea edo kultura, praktikan gero eta ezin ulertuzkoagoak gertatzen dira. Zolitasun-gabezia hori erabilitako metodo-murrizketen ondorioa da. Fundazionalismoak planteatzen duen errealitatea ulertzeko arazoa da interpretagarritasuna gutxitzen den heinean, hazi egiten dela hutsalkeria. Egia bat historikotasunaren higaduratik zenbat eta babestuago egon, garrantzi gutxiago du historikoki eraikita gaudenontzat, gutxiago islatzen du gure askatasunaren jokia, interesatzen, izutzen edo hunkitzen gaituzten gauzetan, hau da, gauzen giza balorea erabakitzen den lekuan. Baina metafisika jakin batek ez lioke errebantziari ukorik egin nahi erradikaltasunaren izenean, ez luke egin nahi aukera bat –edo onenera jota, arrazoizko konpromiso bat– funtsaren eta azalaren artean, muinaren eta formaren artean, interesgarriaren eta aspergarriaren artean. Logikoa da metafisikak arazoak izatea lehen printzipioetatik urrun dauden

errealitateak argi ulertzeko. Erretorika fundazionalista galdu egiten da historikoaren arbitrariotasuna saihesteko funtsean oinarri bat bilatzen duenean, ze askatasunak ez du horrela bere zentzua lortzen, gaur egun gure egiturek ez baitute era horretan funtzionatzen, ez ditugu geure konstituzioak edo arauak horrela interpretatzen, ez da kultura horrela garatzen, ez jakintza teknikoa eta zientifikoa hazten, ez kontzientzia morala osatzen edo politika gauzatzen.

Ontologiatik abiatuta "guztia" ezin dela interpretazio "huts" izan dioen kritika beste baieztapen batekin batera azaldu ohi da, alegia, interpretazioak alde aurretik datorren beste zerbaitek mugatuak ez badira arbitrarioak gertatzen direla, eta horregatik interpretazio bat beste bat bezain ona dela. Baina interpretazionismoak espresuki azpimarratzen du interpretazio bat bestea bezain ona izan daitekeela dioen tesia ez dela gai ulertze "zuzena" zer den azaltzeko, edo porrot komunikatibo batek zer esan nahi duen argitzeko. Hermeneutikarekiko errezeloa eratorri ohi da egia interpretazio jakin baten barruan soilik ematen dela ulertzetik, interpretazioa egia berekin duen jarduera bat balitz bezala, guztia hor urtzen delarik. Hau horrela balitz, edozein emaitza justifikatuko litzateke porrot-possibilitaterik ez dagoelako; interpretazio guztiak berdin-berdinak izango lirateke egiazkoak edo faltsuak, bata zein bestea berdinean izanik. Errorearen eta desengainuaren mehatxurik gabe, hermeneutika bidezidor eroso batetik ibiliko litzateke eta, aldi berean, aurkikuntza interesgarrien posibilitateak galduko litzateke, baita zuzenketarena eta ikastearena ere. Baina, Pareyson-ek aurkitu zuen bezala, interpretazioa tentsioen, leialtasunaren edo porrot-arriskuen gune bat izan daiteke, traizioaren erantzukizunak interpelatuta. Ikusmolde hori

horrelakoa delarik –dramatikoa, ludikoa baino–, gutxi dira izen hori merezi duten interpretazioak, eta diskurtso oker, faltsu, hutsal ugarik inguratuta daude. Interpretazioa erlatibismo-izaeratik libratzen duena, ez da hain justu egia lortzeko posibilitatean sinestea, errore-posibilitatearen beldur izatea baizik, eta beldur horrek ez du ulertzen hermeneutika ezin gezurtatuzko berezitasun gisa.

Zentzua egia baino lehenagokoa dela esateak ez dio, beraz, gizabanakoari arbitrariotasunerako aitzakia ematen, alderantziz baizik. Tesi hau ulertzeko, utzi egin behar zaio denborazko lehenagokotasunaren edo ontologia-mailaren arabera pentsatzeari, eta gaia antropologia-testuinguruan kokatu behar da, argi edukiz horren xedea ez dela, Heidegger-ez geroztik, egia korrespondentzia bezala hartzea, egoitza izatearen zentraltasun gisa baizik. Subjektu-objektu eskema alde batera uzten denean, egia ez da presentzia objektiboa, gurea den zerbait baino. Adierazpen baten egia egiaztatzeko eta gezurtatzeko bide ematen duen irekiera baten barnean soilik izan daiteke frogatua. Baina irekiera hori ez da berez hor dagoen zerbait, baizik eta bere baitan jaurtikita gauzkan zentzu bat, non askatasunaren hastapena jokoan dagoen, mundua objektu gisa hartu nahi lukeen subjektibitatearen guztiz aurka. Zentzuaren lehentasun hori ulertzeko –hau da, badaudela aurrez interpretatuta dauden zirkunstantzia prekontzeptualak–, garrantzi handikoa da bereiztea, alde batetik, zentzu hertsian ekintza kontziente diren interpretazioak eta, bestetik, eta prozesu prekontzeptual eta prekontzienteen interpretazio-izaera. Erlatibismoaren aurkako kritika batzuek ez dute bereizketa hori gogoan hartzen, eta berariazko ekintzak eta kontzienteak soilik hartzen dituzte interpretaziotzat.

Nahaste hori deuseztatzeko, asimetria bat ikusi behar da: ekintza kontziente guztiak dira interpretazio, baina interpretazio guztiak ez dira ekintza kontziente. Zentzua halabehar-gune batean eraikitzen da, erabaki baten ondorio gisa baino gehiago.

Biraketa interpretatiboak lotura berri bat ezartzen du egiaren eta askatasunaren artean, egoera eman batekiko mendekotasunaren eskema alde batera uztean. Egiaren esperientziaren interpretazio-izaera guztiek bide ematen dute giza askatasuna munduarekiko dituen harremanen muinean txertatzeko, eta hori ezinezkotzat jotzen zen arauen mendean ezarritako funtzionamendu baten paradigmatik ulertutako arrazionaltasunaren eskeman. Egiaren eredu ez-interpretaziozkoaren arabera, adimenak egin beharreko ukapenen sekuentzia izango litzateke arrazionaltasuna; konbentzitzea biktima bat mendean hartzearen antzeko zerbait izango litzateke, bortxaketa saihestu ezinekoa sentitzera behartzea. Arrazionaltasunaren paradigma horretan, eredu mekanikoen oihartzunak irauten du, prozedura neutroak eta kausazko automatismoak, filosofia modernoaren eraikuntza handiek eraiki zuten liluraren jatorrian daudenak. Pentsamenduak ikusle baten antzera egintza-multzoaren aurrean bezala jokatu beharko luke bere jardunean, adimen bereizi baten garbitasuna imitatzea hartuz helburu gordetzat, bertsio modernoan subjektu transzendentaleko litzatekeena.

Biraketa interpretatiboak agerian jarri du ezinezkoa dela gure adierazpenen berezitasunak (zentzua, erreferentzia, egia-baldintzak eta baliozkotasuna) arautzen dituen praxitik kanpo kokatzea, hortik erreferentziaz galdetzeko. Mota horretako galdera bat zentzurik

gabekoa da eta, gainera, giza arazoen balioa arazo horiekin zerikusirik ez duen instantzia baten mendean jartzen du. Agian horregatik agertzen da hain sarri metafisika tradizionala, pentsamenduaren gaur eguneko eszenatokian, lurraldez kanpoko instantzia gisa, zintzotasun intelektual gabezia bezala, gure artekoa ez delako gure arazorik ez duenaren inpertinentziarekin, edo, onenera jota, ohartarazpen hutsalaren mezulari. Era horretan ulertutako metafisika ez da gai kortesiazkojarduera baino harantzago doan elkarrizketarako; izaki mugikorrek eta maila filosofiko eskaseko diziplinek, berak zientzia "partikularrak" deitzen dituenek, eskain diezazkioten bitxikeriez informatzea beste helbururik ez duen kortesiazko jarduera baterako soilik.

Hermeneutika garaikideak laguntza ikusgarria eskaini du adimena objektibotasunaren zientifikotasun-idealaren murrizketatik askatzeko. Horregatik, biraketa interpretatiboak egia-eremuaren handitzea eta zabaltzea ekarri du, modernitatean objektibotasun abstraktu eta salbuetsi batek araututako egia-motak murriztua zuen eremua. Zentzuaren ikuspegi berri honetatik abiatuz, gertatzen da ezen lehen hautamen subjektibora, garrantzi publikorik gabekora, mugatuak zeuden zenbait gaitan ere egia ager daitekeela. Hermeneutika ez da inondik egiaren aurkako mehatxu; alderantziz, egia-irizpide garrantzitsu izan daitezkeen arloa hedatu egiten du, hala nola: arrazoizkotasuna, egiantzekotasuna, gustua, zinezkotasuna, zentzagarritasuna, adostasuna, zentzua. Arrazoi praktikoaren eremuak onargarritasun berri bat lortzen du eta ezin aitortuzko zaletasunen alor iluna uzten. Era berean, ezagutzaren baldintza etikoak eskubide osoz arrazionaltasunaren eremuan sartzen dira,

neutraltasun gisako objektibotasun-ideala indargabe geratu ondoren. Ez dira gutxi interpretazioaren ondorio etikoak eta teologikoak ere, eta horri esker arazo praktikoak zurruntasun axiomatikotik askatzen dira eta estiloaren pertsonalizaziora irekitzen. Eta teologiaren ikuspegitik, proposamen teoriko eta dogmatiko gisa ulertzen den egiaren kontzeptua tronutik ken dezake, egia elkar topaketa existentzial gisa ulertzen duen beste ikuspegi bati bidea urratuz.

Itzultzailea: Iñaki Ugalde